

# BIKAIN TASUNERANTZ: NOLAKO JOLASTOKIA NAHI DUGU? DENONA ETA DENONTZAT

**ELIZATXO IKASTOLA HLHI**

**KODEA: 012654**

**2019-2020 IKASTURTEA**

## 1- DIAGNOSTIKOA:

Elizatxo Ikastola HLHI ikastetxea, Hernanin kokaturik dago. 1988/89 sortu eta 1993/94 publikatu zen. Haur eta Lehen Hezkuntzako bi lineako ikastetxea da. Horretaz gain, Irakasle, hezitzaile, administrari langile ez irakaslez, eta gurasoz osaturiko komunitatea da.

Ikastetxeko ikasleen (435) maila sozio ekonomikoa baxua da eta familia etorkinak dituen ikastetxea izanik eskola **bateratzailea** izaten saiatzen gara. Herrian dauden elkarteekin eta erakundeekin lankidetzan aritzen gara ikasle guztiei bertaratze prozesua bermatzeko eta horretan jarraituko dugu.

Hiru eraikin ditugu: Eraikin nagusian, zuzendaritza, idazkaritza LH 1., 2., eta 3. Maila eta jangela handia daude. Eraikin berrian 4., 5. eta 6. mailak, aniztasun gela, ordenagailu gela eta liburutegia daude. Haur Hezkuntza eraikinean, HHko etapa, Gorputz Hezkuntzako aretoa eta jangela txikia daude. Eraikuntza honek **EZ** du **irisgarritasunik** bermatzen eta oztopoak ditugu ikasle guztien premiei erantzuteko. Ikastetxeko **kanpo espazioetan** ziurtasunik gabeko guneak ditugu eta udalarekin elkarlanean konpondu beharra daukagu.

Herri mailan, udalak antolaturiko herriko Ikastetxeetako zuzendari ordezkarian bileretan parte hartzen dugu Herrian premiazko eta garrantzitsuak diren gaiak jorrazteko. Aurtengoa, etorkinak ikastetxeetan da. Lagungarria suertatzen da herriko hezkuntza errealitateaz jabetu eta **herrikidetzan** lanean aritzeko. Aurrerantzean ere horretan arituko gara.

Eskola irekia den horretan, antolaketari dagokionez, Organo Goreneko **Batzorde, bertako familiak eta ikastetxeko guraso elkarte**ko kideek osaturik dagoen arren, batzordeei izaera propioa garatzea falta zaie.

Ebaluazio diagnostikoko emaitzak kontutan harturik, hobetu beharreko alderdiak baditugu: irakurketaren ulermena, matematika, ikasleen arteko tratua txarren txostena aintzat hartuz, **hobekuntza plana** diseinatzea eta **irakurketa plana** izan da gure aurtengo lanik esanguratsuen eta horrekin jarraitzeko asmoa daukagu, ikasleen egiazko premietara egokitzeko.

Orain arte, **Informazio eta Komunikazioa Teknologia** (maila ertaina), Matematika eta Zientzia arloko konpetentzien garapenean urratsak eman ditugu. Guretzako garrantzitsua da konpetentzien garapenean eta ebaluazioetan oinarritutako ikas-irakas prozesuak behar duen eskola giroa bermatzea. Horretarako, **Ikaskuntza kooperatiboaz** baliatzen jarraitzeaz gain, zehar konpetentziak eta diziplina arteko **erronkak ebazteko** diseinatzen ari garen **arazo egoerei** hedapena eman nahi diegu. Funtsezkoa aurreko ikasturtean sortu genuen **Behatokia** ikasleen arteko jokabide baztertzailak ekiditea eta ikasleen arteko lan giroari arreta berezia eskaintzea. Horretarako, **Tutoretza Planaren** barruan ekimen zehatzak jadanik gauzatu ditugu.

laz, Bizikasi ekimenaren bidez Elizatxo Ikastolan **Tratu Onen** ikastetxea izateko lehen urratsak ematen hasi ginen.

Ikastetxeko kide guztioi, ikasle, irakasle, guraso, jangelako langileei patioak, kezka eta buruhaustea besterik sortzen ez digun espazioa dela jabetu ginen.

Bertan, jolas batzuen gehiegizko presentziak, beste batzuen gehiegizko ausentziak desadostasunak, gatazkak, ekitatiboak ez diren uneak, komunikazio ezak sortzen ditu, beste hainbeste egoeren artean.

Ikastetxeko haurrak kontutan hartuz, beraien garapenean jolasak duen garrantzia azpimarratzea ezinbestekoa da. Jolasa haurren berezko ekintza izanik eta jolastokian pasatzen dituzten orduak zenbatzen baditugu, haien bizitzaren zati handi eta garrantzitsua hartzen duela esan dezakegu. Bertan, hezkuntza ez arautuaren bitartez ikasten eta integratzen ditugun baloreak jasoz.

Egoera honetan, **denona** eta **denontzat** izango den ikastetxea, jolaslekua nahiko genuke lortu. Denon nahiak, iritziak eta ametsak jasoko dituen gunea.

Eskola inklusiboari, aniztasunari, berdintasunari, gaitasun anitzei eta berdinen arteko harreman osasuntsuei erantzungo dien espazioa. Denon artean sorturikoa

Denon parte hartzea bermatuko duen metodologia erabiliz, eskolako talde guztiei zuzendutako prozesua izango da. Denok ere, gaitasun eraldatzailea landuko genuke, Jadanik gela arruntetan eta ikasleen Elkarbizitza Batzordean eta Behatokian abian daukagun asmoa. (Bizikasi Ekimena)

Beraz, erronka (arazo egoera) handia dugu esku artean, ikasturte bat baino gehiago hartzen duen proiektua. Hori dela eta Bikaintasunerantz deialdiaren barruan Proiektu integrala eskatzea erabaki dugu

## **2- HELBURU ESTRATEGIKOAK. PROIEKTUAK IRAUTEN DUEN BITARTEAN GARATUKO DIRA: 2019-20/2020-21/2021-22**

1. Curriculumak ezartzen dituen konpetentziak proiektuaren barruan planifikatu, garatu eta ebaluatu. Oinarrizko zehar konpetentziei aparteko garrantzia eskainiz.

2. Eskola Inklusiboaren Plana aintzat hartuz, elkarbizitza eta ekitaterako esparru komun bat zehaztea, aniztasunaren balioa indartzeko eta hezkuntza arloko erantzunak eta praktikak ikasle guztien ikaskuntza premietara eta gaitasunetara egokitzea.
3. Parte -hartze prozesuaren bidez, hezkuntza- komunitatearen parte hartzea, formazioa eta hausnarketa bultzatzea, ikasle guztien eskola eta bizitza arrakasta lortzeko.
4. Hezkidetzan, berdintasunean, **tratu onen** ikastetxea lortzea. Baliabideen eta espazioen erabilera bidezkoa sustatuz. Espazioen banaketak eta erabilerak eta hezkuntza-ingurunearen antolakuntza aintzat hartuz.
5. Herriko erakundeekin, udala, talde eragileak, harremanetan jardutea ikastetxeko espazioak izan dezakeen eraldaketarekin bat etorriz.

### 3- HELBURU OROKORRAK:

- Haurrak protagonista eginez, ikastetxeko jolastokiaren erabileraren bitartez ematen diren harremanak eta jolaserako kulturak eraldatzea.
- Eraldaketa horiek berdintasunean, errespetuan eta hezkidetzan oinarrituta egotea.
- Haurrak Ikastolako langileei eta gurasoei egindako prozesuaren eta adostutako proposamenaren inguruko informazioa helaraztea eta hauek haurrek beraien eremuak eraikitzeke dituzten gaitasunen eta haien erabakitzeko aukeren inguruan sentsibilizatzea.
- Haurren subjektu politiko izaera indartzea haien proposamenak eraikitzeke, adosteko, aurkezteke eta balion jartzeko espazio bat eskaini.
- Irakasleria prozesuan bertan aktiboki doitu eta ondorengo emaitzak gidatzen trebatu (monitorizatu)
- Eskola komunitate osoaren parte hartze aktiboa landu eta gauzatu ikastetxeko OOG-neko guraso eta Leoka Guraso Elkarteko eta ikas komunitateko gurasoen parte hartzea bultzatuz.

### 4- HARTZAILEAK:

Ikastetxea osatu eta eragiten duten talde guztiak: ikasle, irakasle, guraso, jangelako langile, ekintza osagarrietako langileak, udala

### IRAKASLE TALDEA:

Haur Hezkuntza: 11 irakaslea

Lehen Hezkuntza: 25 irakasle

Guztira: 36

## IKASLE TALDE KOPURUA:

Haur hezkuntza: 8

Lehen hezkuntza: 12

Guztira: 20

## 4- (2019-20/2020-21) Ikasturtean GAUZATUKO DIREN EKINTZAK IRAKASLEENTZAKO PRESTAKUNTZA JARDUERAK BARNE:

### LAN PROZESUA

Hiru urte hauetan pausu ezberdinak emango dira eta hurrengo lerroetan pausu horiek nola emango ditugun deskribatuko dugu.

Prozesu honetan ikastetxea eta Farapi lan-taldea eskutik joan dira eman beharreko koordinazio estua eta plangintza burutzeko. Bide honetan estuki arituko gara beharrei erantzun eta dinamika positiboak gauzatzeko.

Prozesua 5 pausutan ezberdindu dugu:

1. *Printzipioak - haurren diagnostikoak – asmoak*
2. *Komunean jarri – aurre diseinuak adostu – aurkezpenak prestatu*
3. *Aurkezpenak egin*
4. *Proposamenak gauzatu fisiko eta kulturaliki*
5. *Prozesua monitorizatu (gidatu)*

### 1.1. Printzipioak – haurren diagnostikoak – asmoak

Gauzatze urtea: 2019-2020 ikasturtea

Fase honek **2 ezaugarri** ezberdin ditu, alde batetik **eskolako haur guztiekin lan egingo da** eta bestaldetik Farapi eta ikastolako irakasleen arteko elkarlana izango da nagusi, beraz haurrekin lan egiteaz gain, fase hau, **metodologia parte hartzaileetan eta prozesuan irakaslegoa formatzeko espazio** izango da.

Hau da, **Farapik Lh 3 eta Lh 5eko gela banarekin Saio-Eredu** bat egingo du. Eta eredu hori hartuta, eta Farapiren bidelaguntzarekin, **Elizatzoko irakaslegoak gela guztietan egingo dute**.

Saio guzti hauetatik ateratzen den informazioa Farapik jasoko eta bateratuko du prozesuarekin jarraitu ahal izateko.

Haurrekin burutuko diren **saioek** honako **helburuak** izango dituzte:

- Haurren artean jolastokian egon behar diren harreman, espazioaren okupaziorako eta kultura berri bat sustatzeko printzipioak adostuko dira.
- Haurrekin gaur egun jolastokian gertatzen denaren diagnostikoa egingo da.
- Jolastoki eta bertan bultzatu nahi den kultura berriarentzako izan dezaketen asmo ezberdinak sortuko eta jasoko dira.

Esan bezala, Farapik, *Saio-Eredua* bi gelek in egingo ditu gero **Elizatxoko irakasle bakoitzak bere gelan errepikatu dezan**. Horretarako, **Ikastolak Farapiren laguntza** izango du. Laguntza hori **horrela gauzatuko da**:

- Farapik, *Saio-Eredua* egin aurretik, saio batean irakasle guztiekin edo lagin batekin bilduko da eta saioaren nondik norakoak azalduko die (lagin batekin saioa egiten bada, parte hartuko dutenek ardura izango dute beste irakasle guztiei jasotakoa transmititzeko).
- *Saio-Ereduan*, irakasle talde txiki bat (3, ziklo bakoitzeko bat) egon daiteke behatzaile modura.
- Farapik saioa burutzeko *Karta Didaktikoa*<sup>1</sup> prestatuko du.

Honetaz gain fase hau gauzatzeko ikastolak sortzen duen talde edo pertsona arduradunarekin koordinazio momentuan egongo dira. **Koordinazio momentu** (printzipioz, ez presentzialak, gehien bat telefonoz edo emailez) hauek honako helburuetarako izango dira:

- Egin behar diren pausu guztien (Saio-Eredua, irakasleekin saioa) kronograma (egunak eta orduak) zehazteko.
- Prozesuaren nondik norakoak bideratzeko, beharrezkoa balitz.
- Edozein arazo edo mugaren inguruan elkar hitzegiteko eta beharrezkoa balitz bideratzeko.

Laburbilduz, fase honek **honako pausuak** izango ditu:

1. Irakasleekin bidelaguntzarako saioa (1 ordukoa)
2. Farapik LH3 eta LH5 gela batekin Saio-Eredua (2 ordukoak)
3. Irakasleek haien geletan errepikatuko dute saioa
4. Informazioa guztia jasoko da.
5. Informazio guztiari forma emango zaio.
6. Hurrengo fasea prestatzen hasi.

---

<sup>1</sup> Karta didaktikoa Farapik saioetarako erabiltzen duen gidoia. Bertan denborak, momentu bakoitzean ze material behar den, zeinek hartuko duen hitza, zer egin behar den, kontutan hartu beharreko gauzak... jasotzen dira.

7. Transbertsalki fase osoan zehar: koordinazioa egingo da (ez presentziala)

## **1.2 Komunean jarri – aurre diseinuak adostu – aurkezpenak prestatu** **Gauzatze urtea: 2019-2020 ikasturtea**

Proiektu honen ardatzeko bat Oinarrizko zehar kompetentziak lantzea izango da. Ikasleak bizitzako alor eta egoera pertsonaletan, sozialetan akademikoetan eta lanekotan diziplina guztietan nahiz eguneroko bizitzan, arazoak eraginkortasunez konpontzeko behar direnak jaso eta lantzeko.

Hau da proiektuaren muina.

- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia
- Elkarbizitzarako kompetentzia
- Ekimenerako eta ekiteko kompetentzia
- Izaten ikasteko kompetentzia

Hori dela eta, fase honek bi ezaugarri nagusi ditu, alde batetik prozesurako adostuko diren ikastolako ordezkariekin lan egingo da eta bestaldetik ordezkari talde honek prozesu eta emaitzen aurkezpena eta sozializazioa egiteko ardura izango dute.

Berriz ere, Farapi eta Ikastolaren elkarlanaren ondorioz fase honetarako **20 haurren talde ordezkari bat osatu** beharko da. Talde hau anitza izan behar du, bai adinean, sexuan, gustuetan, izaeretan (kalakariak, ixilak, imaginatiboak, negoziatzaileak, soziableak, horren soziableak ez direnak ...), ezaugarri ekonomikoetan, jatorria, etabar.

Talde hau osatzeko aurreko faseko saioak aprobetxatuko dira, hau da, egiten diren saioetan ordezkari bolondresak eskatuko dira eta gero Farapi eta irakasleen artean 20 haurren talde ordezkaria osatuko da.

Fase honetan Ordezkarien Taldearekin 2 saio (2 edo 3 ordukoak) egingo dira. Farapik gidatuko dituena. **Saio hauen helburuak** honakoak izango dira:

- Aurreko fasean ateratako guztia komunean jarri Taldearekin.
- Nahi den/diren jolastokirako diseinuak eta kultura berria(k) adostu.
- Prozesuaren eta emaitzen aurkezpena eta sozializazioa prestatu.

Laburbilduz, fase honek **honako pausuak** izango ditu:

1. Ordezkarien Talderako ordezkarien izenak jaso.

2. Farapi eta ikastolaren artean 20 hurren Ordezkeri Taldea adostu eta osatu.
3. Ordezkeri Taldearekin 1go saioa.
4. Ordezkeri Taldearekin 2. saioa.
5. Farapik saiotan ateratako guztia ordenatu eta landuko du hurrengo faseari begira.
6. Transbertsalki fase osoan zehar: koordinazioa egingo da

### 1.3 Aurkezpenak egin/ Gauzatze urtea: 2019-2020 ikasturtea

Fase honetan ezaugarri nagusi bat azpimarratu nahi dugu, **sozializatorako fase bat da**. Hau da hurrek lideratu duten prozesua berdinei eta eremu ezberdinetako "helduei" (irakasleak, gurasoak, eta ikastolako bestelako langileak) aurkeztu, azaldu eta baloreen jarriko dute.

Fase honek **3 aurkezpen** ezberdin izango ditu eta aurkezpen hauek hurren Ordezkerien Taldea egingo du Farapiren laguntzarekin<sup>2</sup>:

1. Irakasleei.
2. Ikastolako beste langileei.
3. Gurasoei.

3 **saio** hauek **helburu** berdinak izango dituzte:

- Egin duten prozesuaren emaitzak azaltzea.
- Egin den lana baloreen jartzea.
- Konpromisoak biltzen hasi.

Laburbilduz, fase honek **honako pausuak** izango ditu:

1. Irakasleekin aurkezpen saioa egin. (1ordu)
2. Ikastolako langileei aurkezpen saioa egin. (1ordu)
3. Gurasoekin aurkezpen saioa egin. (1ordu)
4. Transbertsalki fase osoan zehar: koordinazioa egingo da



#### **1.4 Proposamenak gauzatu fisiko eta kulturalki/ Gauzatze urtea: 2019-2020 ikasturtea**

Fase honetan aurreko faseetan **adostu eta pentsatu diren gauza guztiak gauzatuko** dira. Beraz fase honen ezaugarri nagusia konpromisoa eta ekintza izango dira.

Bete nahi dugun helburu honetarako Ikastolako komunitatea osatzen duten talde guztien elkarlana beharko da. Hau dela eta, Ikastolako langileekin Trebakuntza saio bat egingo da eta gurasoekin beste bat.

Trebakuntza **saioak honako helburuak** izango ditu:

- Proposamena fisikoki gauzatzeko zergatiak konpartitu eta gauzatzeko konpromisoak lortu.
- Jolastokiaren kultura berria ulertzeko gakoak eman.
- Jolastokiaren kultura berria babestea.

Honen ostean, Ikastolako langileak, haurrak eta gurasoak proposatu dena gauzatzeko lanean jarriko dira, auzolanaren filosofia jarraituz ahal den kasuetan.

Farapik koordinazioan lagunduko du jolastokia eraldatzeko behar diren pausuak<sup>3</sup> ematen. Baina eraldaketa prozesua Ikastolako komunitatearen esku geldituko da.

Laburbilduz, fase honek **honako pausuak** izango ditu:

1. Trebakuntza saioa gurasoekin.
2. Trebakuntza saioa Ikastolako langileekin (irakasle, hezitzaile, administratibo, sukaldari...).
3. Transbertsalki fase osoan zehar: koordinazioa egingo da

#### **1.5 Prozesua gidatu /Gauzatze urtea: 2020-2021 ikasturtea**

Azken fase hau jolastokiaren kultura berria abiatu eta ondoren burutuko litzateke. Monitorizatzea egoera berriari jarraipena egitea deritzogu.

Monitorizatze prozesu hau nahiko etnografikoa izatea planteatzen dugu, hau da, behaketetan eta elkarrizketetan oinarrituko genuke. Behaketa eta elkarrizketa hauek egiteko gidoi ezberdinak eraikiko genituzke, gero **emaitzak adierazle kualitatiboetan** bihurtuz.

---

<sup>3</sup> Aipatzen diren pausu hauek ez daude oraindik definituak eta saila da aurreikustea. Hala ere, momentua heldzean adostuko dira Farapiren egin beharrak atal honetan dagoen aurrekontuaren arabera.

Farapik behaketa eta elkarrizketetarako gidoiak prestatuko ditu eta monitorizazio irakasleek egingo dute. Horretarako, prozesu honetarako etnografia teknika egokituen trebakuntza saioa emango zaie, monitorizazio egingo duten irakasle eta bestelako langileei (adibidez, jantokiko hezitzaileak).

Monitorizazio horretan ateratzen diren emaitzak irakurtzeko Farapi eta Elizatxo Ikastolaren arteko saio bat egingo da. Bertan ateratzen diren emaitzen arabera Jolastokiaren Kultura berri horretan berrikuntzak, aldaketak etabar egin beharko diren erabakiko da eta hurrekin konpartituko da.

Monitorizazio hau behin egina, jasotako lan egiteko metodoa ikasita egongo da eta nahi den bestetan aplikatu ahal izango da. Farapiren gomendioa da 2 urtez monitorizazio hau egitea, eta monitorizazioaren 2. Urtea ikastolaren esku geldituko litzateke.

Laburbilduz, fase honek **honako pausuak** izango ditu:

1. Monitorizaziorako tresna etnografikoak sortu.
2. Monitorizazioa eta tresna etnografikoak erabiltzen ikasteko trebakuntza irakasleei.
3. Monitorizazioaren emaitzen irakurketa kolektiboa.
4. Monitorizazioaren irakurketaren ondorioak sozializatu hurrekin.

2021-22 ikasturtean ikastetxea

Asmoak asmo, gure ametsen proiektu hau hiru urteetan egingo dugun ibilbide honetan, aurreneko ikasturteko 2019-2020ko helburuak, jarduerak eta ebaluazio adierazleak zeintzuk diren finkatuta ditugu. Ibilbidea eginez egingo denez, zenbaitxo jadanik aurreikusita dugun arren, aurrerantzean sortuko dira hurrengo ikasturterako 2021-2022ko helburuak eta dagokien jarduerak. Hori baita lan honen egitekoa, ikas komunitatea osatzen dugunon artean proiektuari izaera propioa ematea, bidean **denon eta denontzako JOLASLEKUA** sortu.





## 7-PROIEKTUA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK ETA EMAITZAK ETA INPAKTUA NEURTZEKO ADIERAZLEAK/IRIZPIDEAK

**HELBURU ESTRATEGIKOA:** Curriculumak ezartzen dituen kompetentziak proiektuaren barruan planifikatu, garatu eta ebaluatu. Oinarrizko zehar kompetentziei aparteko garrantzia eskaini

- HELBURUA: : Haurren subjektu politiko izaera indartzea haien proposamenak eraikitzeko, adosteko, aurkezteko eta balion jartzeko espazio bat eskaini.

JARDUERAK	DENBORALIZAZIOA	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	Ebaluaziorako irizpideak	Ebaluaziorako adierazleak
Haurrek jolastokian egon behar diren harreman, espazioaren okupaziorako eta kultura berri bat sustatzeko printzipioak adostu	2019-2020ko Iraila eta urria	Farapi lan taldea 3 eta 5 ikasmailak Zuzendaritza Zikloko bakoitzetik irakasle 1 Irakasleria	Karta didaktikoa (Farapi gida)	Karta didaktikoa erabiltzen ikasi da	Harreman, espazio eta kulturarako printzipioak adostu dira
Haurrekin gaur egun jolastokian gertatzen denaren diagnostikoa egin	2019-2020ko Iraila eta urria	Farapi lan taldea 3 eta 5 ikasmailak Zuzendaritza Zikloko bakoitzetik irakasle 1 Irakasleria	Karta didaktikoa (Farapi gida)	Karta didaktikoa erabiltzen ikasi da	Diagnostikoa egin da
Ikasleek jolastoki eta bertan bultzatu nahi den kultura berriarentzako izan dezaketen asmo ezberdinak sortu eta jaso	2019-2020ko Iraila urria	Farapi lan taldea 3 eta 5 ikasmailak Zuzendaritza Zikloko bakoitzetik irakasle 1 Irakasleria	Karta didaktikoa (Farapi gida)	Karta didaktikoa erabiltzen ikasi da	Asmoak sortu eta jaso dira
Irakasle taldea Parte-hartze prozesuetan	2019-2020ko Iraila urria	Irakasle taldea	Karta didaktikoa (Farapi gida)	Karta didaktikoa erabiltzen ikasi da	Irakasle taldeak formazioa jaso du

doitzeko formazioa jaso	Apirila maiatza				
Prozesuaren berri ikasleek sozializatu	2020-2021 ikasturtea* Urtarrila 2021-2022 ikasturtea Azaroa-abendua	Irakasle taldea ikasleak			

**2-HELBURU ESTRATEGIKOA: Eskola Inklusiboaren Plana aintzat hartuz, elkarbizitza eta ekitaterako esparru komun bat zehaztea, aniztasunaren balioa indartzeko eta hezkuntza arloko erantzunak eta praktikak ikasle guztien ikaskuntza premietara eta gaitasunetara egokitzea.**

<ul style="list-style-type: none"> <li>HELBURUA: Haurrak protagonista eginez, ikastetxeko jolastokiaren erabileraren bitartez ematen diren harremanak eta jolaserako kulturak eraldatzea. Eraldaketa horiek berdintasunean, errespetuan eta hezkidetzan oinarrituta egotea.</li> </ul>					
JARDUERAK	DENBORALIZAZIOA	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	Ebaluaziorako irizpideak	Ebaluaziorako adierazleak
Aurreko fasean ateratako guztia komunean jarri	2019-2020ko Urria bukaera azaroa	Farapi lan taldea 20 ikasle ordezkari Irakasleria Zuzendaritza	Aurreko fasean jasotako edukien txostena	Edukien txostena erabili da	Edukia komunean jarri da
Nahi den jolastokirako diseinu eta kultura adostu	2019-2020ko Urria bukaera azaroa	Farapi lan taldea 20 ikasle ordezkari Irakasleria Zuzendaritza	Aurreko fasean jasotako edukien txostena	Edukien txostena erabili da	Diseinua eta kultura adostu da
Irakasleria, ikastetxeko kultura berri bultzatzeko monitorizazio metodoa erabiltzen trebatu	2020-2021 ikasturtea * Urria	irakasleria	Behaketarako eta elkarrizketarako tresna etnografikoak	Irakasleriak Behaketa eta elkarrizketak egiteko tresna etnografikoa ezagutu eta erabili ditu	Irakasleria monitorizazio n (gidatzen ) trebatu da

\*Aipatzen den formazio honen data gutxi gora beherakoa da.

**3-HELBURU ESTRATEGIKOA:** Parte -hartze prozesuaren bidez, hezkuntza- komunitatearen parte hartzea, formazioa eta hausnarketa bultzatzea, ikasle guztien eskola eta bizitza arrakasta lortzeko

- **HELBURUA:** Haurrak Ikastolako langileei eta gurasoei egindako prozesuaren eta adostutako proposamenaren inguruko informazioa helaraztea eta hauek hurrek beraien eremuak eraikitzeko dituzten gaitasunen eta haien erabakitze aukeren inguruan sentsibilizatzea.

JARDUERAK	DENBORALIZAZIOA	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	Ebaluaziorako irizpideak	Ebaluaziorako adierazleak
Ikasleek egin duten prozesuaren emaitzak azaldu (irakasleei, gurasoei, langileei)	2019-2020ko Azaro bukaera abendua	Farapi lan taldea 2o ikasle ordezkari Irakasleria Zuzendaritza	Emaitzak jasotako txostenak	Txostenak erabili dira	Prozesuaren emaitzak azaldu dira
Ikasleek egin dena baloratu eta konpromisoak bildu	2019-2020ko Azaro bukaera abendua	Farapi lan taldea 2o ikasle ordezkari Irakasleria Zuzendaritza	Konpromisoan txostena	Konpromisoen txostena erabili dira	Konpromisoak bildu dira egindakoa baloratu da
Prozesuaren monitorizazioaren irakurketa kolektiboa burutzea	2020-2021 ikasturtea* Urtarrila 2021-2022 ikasturtea* Azaroa abendua	Ikasle, irakasle, guraso eta Farapi	Emaitzak jasotzeko txostena	Txostenak erabili dira	Irakurketa kolektiboa egin da

\* data hauek orientatiboak dira

**4- HELBURU ESTRATEGIKOA:** Herriko erakundeekin, udala, talde eragileak... harremanetan jardutea ikastetxeko espazioak izan dezakeen eraldaketarekin bat etorritz.

● HELBURUA: Udalari, Herriko eragileekin, erakundeei egindakoaren berri helaraztea					
JARDUERAK	DENBORALIZAZIOA	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	Ebaluaziorako irizpideak	Ebaluaziorako adierazleak
Parte hartze prozesuaren berri eman	2019-2020-ikasturtea* 2020-2021-ikasturtea 2021-2022-ikasturtea	Gurasoak Ikasleak Zuzendaritza	Proiektuan ateratako ondorioen emaitzen txostena	Emaitzen txostena erabiltzea	Parte hartze prozesuaren berri eman da

\*data zehaztu gabe dago

**8- ORDU KOPURUA:**

- Prestakuntza : 43
- Diseinua: 41
- Aplikazioa: 34
- **Guztira: 118**



## 9- AURREKONTUA:

### 1GO URTEA

<b>1. Printzipioak - haurren diagnostikoak – asmoak</b>	PERTSONAK	ORDUAK GUZTIRA	€ GUZTIRA
SAIOA PRESTATU	2,00	8,00	480,00 €
SAIOA EGIN LLH 3	2,00	4,00	240,00 €
SAIOA EGIN LLH 4	2,00	4,00	240,00 €
IRAKASLEEKIN KOORDINATU-FORMATU	2,00	5,00	300,00 €
IRAKASLEEK EGINDAKO LANA ELKARTU	2,00	10,00	600,00 €
MATERIALA	1,00	2,00	120,00 €
IRAKASLEEKIN KORDINATU	1,00	2,00	120,00 €
FASE HONEN REGISTRO TXIKIA	1,00	2,00	120,00 €
KILOMETRAJEA ETA DIETAK			86,00 €
		<b>37,00</b>	<b>2.306,00 €</b>
<b>2. Komunean jarri – aurre diseinuak adostu – aurkezpenak prestatu</b>	PERTSONAK	ORDUAK GUZTIRA	€ GUZTIRA
1 SAIOA PRESTATU	2,00	8,00	480,00 €
1 SAIOA EGIN (20 HAUR)	2,00	6,00	360,00 €
1 SAIOA HUSTU	1,00	4,00	240,00 €
2 SAIOA PRESTATU	2,00	8,00	480,00 €
2 SAIOA EGIN -AURKEZPENA PRESTATU (20 HAUR)	2,00	4,00	240,00 €
2 SAIOA HUSTU	1,00	2,00	120,00 €
MATERIALA	1,00	2,00	120,00 €
IRAKASLEEKIN KOORDINATU	1,00	1,50	90,00 €
KILOMETRAJEA ETA DIETAK			86,00 €
		<b>35,50</b>	<b>2.216,00 €</b>
<b>3. Aurkezpenak egin</b>	PERTSONAK	ORDUAK GUZTIRA	€ GUZTIRA
IRAKASLEEKIN AURKEZPENA	2,00	3,00	180,00 €
IRAKASLEEKIN AURKEZPENA	2,00	3,00	180,00 €
GURASOEKIN AURKEZPENA	2,00	3,00	180,00 €
MATERIALA	1,00	0,50	30,00 €

IRAKASLEEKIN KOORDINATU	1,00	1,50	90,00 €
KILOMETRAJEA ETA DIETAK			129,00 €
		<b>11,00</b>	<b>789,00 €</b>
<b>4. Proposamenak gauzatu fisiko eta kulturalki</b>	<b>PERTSONAK</b>	<b>ORDUAK GUZTIRA</b>	<b>€ GUZTIRA</b>
SAIOEN PRESTAKETAK	2,00	6,00	360,00 €
PROPOSAMENA FISIKOKI GAUZATZEKO			
GURASOENTZAKO TREBAKUNTZA	2,00	2,00	120,00 €
PROPOSAMENA FISIKOKI GAUZATZEKO			
HEZITZAILEENTZAKO TREBAKUNTZA	2,00	3,00	180,00 €
KOORDINAZIOA ERALDAKETA GAUZATZEKO	1,00	2,00	120,00 €
KORRINAZIOA ERALDAKETA GAUZATZEKO	1,00	2,00	120,00 €
MATERIALA-PROFESIONALA JOLASTOKIA MOLDATZEKO	1,00	17,00	1.020,00 €
KILOMETRAJEA ETA DIETAK			64,50 €
		<b>26,00</b>	<b>1.984,50 €</b>
<b>2. eta 3. URTEA</b>			
<b>5. Prozesua monitorizatu</b>	<b>PERTSONAK</b>	<b>ORDUAK GUZTIRA</b>	<b>€ GUZTIRA</b>
MONITORIZAZIORAKO ELKARRIZKETA ETA BEHAKETA			
GIDOIAK	2,00	8,00	480,00 €
ETNOGRAFIAN TREBAKUNTZA SAIOA PRESTATU	1,00	4,00	240,00 €
ETNOGRAFIA TREBAKUNTZA SAIOA EGIN	1,00	1,00	60,00 €
EMAITZEN IRAKURKETARAKO SAIOA PRESTATU	2,00	5,00	300,00 €
EMAITZEN IRAKURKETARAKO SAIOA EGIN	2,00	5,00	300,00 €
KOORDINAZIOA	1,00	1,00	60,00 €
KILOMETRAJEA ETA DIETAK			64,50 €
		<b>24,00</b>	<b>1.504,50 €</b>
GUZTIRA bez gabe		133,50	8.800,00 €
<b>GUZTIA bez barne</b>		<b>133,50</b>	<b>10.648,00 €</b>